

3. MAILA

Ahozko azterketa

Epaimahaikoen aurrean egin beharreko ariketa

1. ZATIA. Gaia azaldu eta iritzia eman (5 min)

(5 minutu
azterketari
bakoitzak)

**Guztira 10 bat
minutu**

Prestatzeko denbora:

20 minutu inguru dituzu gaiaren garapena (egiteko hau) prestatzeko.

Gaia prestatua duzunean, itxaron aztertzaileek deitu arte.

Prestatu behar duzun gaia:

A

GAURKO ESKOLETAKO DIZIPLINA



Iñigo Lamarca

Euskal Autonomia Erkidegoko Arartekoa

Orokorrean ikastetxeetan ez dago kezkatzeko arrazoirik, baina diziiplina ezarekin lotutako arazo larriak nahiko zabaldua daude. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastetxeetan ikasleen, irakasleen eta familien artean daogoen giroa ona da, baina hainbat arazori behar bezala heldu behar zaie bizikidetzeta hobetzeko.

Atzemandako arazo nagusiak gehienbat irakasleen autoritatea ukatzearekin lotuta daude, eta ez horrenbeste ikasleen edo irakasleen kontrako jazarpenarekin. Izan ere, gelako martxa etetea eta halako diziiplina akatsak sarritan gertatzen dira.

Bestalde, irakasle gehienek gainezka egiten dutela sentitzen dute, alde batera utzita daudela, bitarteko nahikorik ez dutela, eta oso kritikoa dira Administrazioarekin.

Berria 2006ko abenduaren 20a



6 A

Gaia prestatzeko:

- Zer dio elkarrizketatuak?
- Zein ideia azpimarratuko zenuke? Zergatik?

Eman zure iritzia:

- Zer diozu gaiaz?
- Zer proposatuko zenuke egoera hobetzeko?

EZ IDATZI EZER ORRI HONETAN

Azterketa deialdia: **2008ko ekaina**



Eusko Jaureritzako Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

3. MAILA

Ahozko azterketa

Epaimahaikoen aurrean egin beharreko ariketa

1. ZATIA. Gaia azaldu eta iritzia eman (5 min)

(5 minutu
azterketari
bakoitzak)

**Guztira 10 bat
minutu**

Prestatzeko denbora:

20 minutu inguru dituzu gaiaren garapena (egiteko hau) prestatzeko.

Gaia prestatua duzunean, itxaron aztertzaileek deitu arte.

Prestatu behar duzun gaia:

B

GORPUTZ PERFEKTUAREN BILA



□ "Espainiar estatuan 300.000 pertsonari egin zitzaien iaz kirurgia estetiko ebakuntzaren bat; horri esker, **Europako** buruan eta mundu zabaleko *hirugarren tokian* jarri zen medikuntza estetiko gastuaren zerrendan.

□ Sektore horrek urtean seiehun milioi euro mugiarazten ditu bere bi adarretan: kirurgia estetikoan (ebakuntza baten bitartez, itxura fisikoa aldatzea helburu duena) eta medikuntza estetikoan (honek ere hobekuntza estetiko du helburua, baina ebakuntza kirurgikorik egin gabe, bisturia erabiltzea eskatzen ez duten tratamenduak aplikatuz).

□ Kirurgia estetikoa erabiltzen duten gazteen kopurua geroz eta handiagoa da. **Ameriketako Estatu Batuetan** 10 eta 18urte bitarteko gazteen % 10 noizbait ebakuntza-gela batean egona da arrazoi estetikoak direla-eta. Azkeneko **urteotan % 70eko hazkunde izan da kontsulta estetikoetan**. Espezialista mota hauengana jo duten 20 urte baino gutxiagoko pertsona kopurua % 15 da (horietatik % 85 neskek eta % 15 mutilak dira). Kontsulten % 15 eta 20 bitartean *adin txikikoak* dira. Oso azkar garatzen ari den gaia da eta epe laburrean kopuruak bikoiztuko direla uste da."

Wikipediako artikulua, 2008



6 B

Gaia prestatzeko:

- Zer dio informazioak?
- Zein ideia azpimarratuko zenuke? Zergatik?

Eman zure iritzia:

- Zer diozu gaiaz?
- Zein dira kirurgia estetikoaren alderdi onak eta zein txarrak?

(beste azterketariak esan duenaz ere iritzi laburra eskatuko zaizu)

EZ IDATZI EZER ORRI HONETAN

2. ZATIA BAT-BATEKO ELKARRIZKETA

3. MAILA

HADE
75

Gaia: IKASLEEN OPORRAK LABURREGIAK DIRA.



Elkarrizketa bideratzeko:

- Gaztetan **aprobetxatzen ez badute**, gero ez dute aukerarik izango.
- **Merezitako** atsedena da. **Egunero mila kontu** dituzte: kirola, ingelesa, etxeko lanak...
- **Gurasoen oporrak dira laburregiak.**
- Opor-garaian egiten dena ere **heziketaren parte** da.

2. ZATIA BAT-BATEKO ELKARRIZKETA

3. MAILA



Gaia: IKASLEEN OPORRAK LUZEEGIAK DIRA.



Elkarrizketa bideratzeko:

- Ikasleek **denboraren erdia** oporretan ematen dute.
- Oporrek **etxeko martxa hankaz gora** jartzen dute: gurasoak lanean, haurrak etxean...
- **Ikasketen martxa eten** egiten da. **Gauzak ahaztu** egiten dira.
- **Gazteak alfertu** egiten dira. Denbora galtzen dute Ikasi behar dute **bizitza ez dela horrelakoa**.